



ELKAR ULERTZEKO MEMORANDUMA

**EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARIAREN,
IÑIGO URKULLU JAUNAREN,**

ETA

**QUEBECEKO LEHEN MINISTROAREN,
PHILIPPE COUILLARD JAUNAREN,**

ARTEAN,

EUSKADIREN ETA QUEBECEN ARTEKO LANKIDETZARI BURUZ

2015eko abenduaren 8an Parisen, klima-aldaketari buruzko Parisko Konferentziatik kanpo, izandako topaketaren harira, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, Iñigo Urkullu jauna, eta Quebeceko Lehen Ministroa, Philippe Couillard jauna, Quebecen bildu dira, 2017ko urriaren 31an, Euskadiren eta Quebecen arteko lankidetzari berri baterako oinarriak ezartzeko asmoz.

Lehendakariak eta Lehen Ministroak, Euskadi eta Quebec hurbiltzen dituzten lotura historiko eta kulturalak azpimarratzen dituzte. Halaber, gogorarazten dute kultura bizi eta dibertsifikatu baten bitxitasuna eta originaltasuna zaintzeko eta indartzeko nahia haien nortasunaren elementu nagusi bat dela bai Euskadin bai Quebecen bai. Era berean, gogorarazten dute bi herriok historia komun bat partekatzen dutela, XVI. eta XVIII. mendean euskal arrantzaleak egon baitziren San Laurendin.

Bi gobernuak, gizarte ireki bat sustatu nahi dute nun kultura eta jatorri desberdinetako pertsonak elkarrekin bizitzeko nahia berbera adierazten dute. Horretarako, bi aldeek ezagutza eta jardunbide egokiak partekatzea sustatuko dute.

Kanadaren eta Europar Batasunaren arteko Ekonomia eta Merkataritza Akordio Globalaren behin-behineko aplikazioak dakarren hurbiltzeko aukeraz baliatuz, aipatzen dute Euskadiren eta Quebecen artean negozioak eta inbertsioak egiteko egokierari buruzko informazio-trukeak babesteko dituztela.

Halaber, Lehendakariak eta Lehen Ministroak haien ekonomiak garatzea ahalbidetuko duten lankidetzari bideetan sakondu nahi dute, zehatz-mehatz, sektore estrategikoak abiaburu hartuta, alegia, klima-aldaketaren aurkako eta ingurumenaren aldeko borroka. Horretarako, bi gobernuak The Climate Group taldeko Estatu Federatuen eta Eskualdeen Aliantzan eta Garapen Jasangarriaren aldeko Eskualdeko Gobernuen Sarean (nrg4SD) parte hartuz jadanik hasi duten lankidetzari gogorarazten dute.

Era berean, Lehendakariak eta Lehen Ministroak nor bere itsas ekonomiaren hazkunde jasangarriaren alde lan egiteko asmoa dutela nabarmentzen dute. Ildo horretan, apustu horietan esperientzia trukatzera animatzen dute eta loturak sortzeko eskatzen diete itsas eremuan interesatuta dauden milaka euskaldun eta quebecari.

Bestalde, Lehendakariak eta Lehen Ministroak aitortzen dute kultura gizarte bakoitzaren garapen jasangarriaren osagai transbertsal nagusia dela eta, haien ustez, horrela interes komunekin eremu guztietan eta, zehazki, ondarearen eremuan kulturari dagokionez elkarlan hurbilago batean aritzearen alde egiten dute. Helburu hori erdiesteko, kultura-trukeen sustapena, artisten zirkulazioa, artisten, sortzaileen edo kultura-industrien truke profesionalak, bi komunitateen ezagutza eta esperientzia partekatzeak aukera eta, bereziki, obren, ondare-ondasunen eta kultura-produktuen zabalkundea babestuko dituzte.

Halaber, Lehendakariak eta Lehen Ministroak baieztatzen dute garrantzia ematen diotela UNESCOren Kultura Adierazpenen Aniztasuna Babesteko eta Sustatzeko Konbentzioari eta adierazten dute konbentzio horren espirituarekin bat datozen eta haren printzipioak eta helburuak abian jartzen laguntzen duten ekintzetan elkarrekin lan egiteko asmoa dutela, zehatz-mehatz, ingurune digital batean.

Alde bateko eta besteko hizkuntzak garatzeko eta sustatzeko eremuan jarduten duten adituen eta ikertzaileen artean badauden trukeak gogorarazita, azpimarratzen dute hizkuntza-politikari buruzko trukeak oso interesgarriak izan daitezkeela haien administrazioentzat.

Bi gobernuak nazioarteko agertokian finkatzeko asmoa daukate eta alde batetik eta bestetik esparru horretako informazioa eta esperientzia partekatzea animatu nahi dute, zehazki, nazioarteko partzuergo handietan, hala nola Horizon 2020 delakoan, batera parte hartzeko xedearekin. Era berean, Lehendakariak eta Lehen Ministroak garrantzitsua deritzote berrikuntzari, ekonomiaren higiarazlea baita.

Askotariko sektore horietan elkarlanean aritzeko asmoa zehazte aldera, Lehendakariak eta Lehen Ministroak adierazpen hau komunikabideen aurrean eta beste erakunde interesatu batzuen aurrean sustatzea erabaki dute. Halaber, koordinazioa eta proiektuen eta ekintzen gauzatzea ahalbidetuko duen mekanismo baten sorkuntza bultzatzea hitzartzen dute, haien komunitateen aurrerapen ekonomiko eta sozialaren onerako. Mekanismo horrek topaketa batzuk ekar litzake, interes komunekin sektoreak identifikatzeko helburuarekin.

2017ko urriaren 31an sinatuta hiru hizkuntzatan, frantsesez, gaztelaniaz eta euskeraz, hirurak baliozkoak izanik orobat.

Iñigo Urkullu

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

Philippe Couillard

Quebecoko Lehen Ministroa